

**Laurent Diharasarri**

**APHEZEN  
DRETZOAK ETA  
EGINBIDEAK  
ELETZIONETAN**

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,  
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Iturria: *Aphezen dretchoac eta eginbideac  
eletzionetan*, Laurent Diharassarry. Laserre liburu  
egilearen baithan, 1890.

<http://klasikoak.armiarma.com/>

**APHEZEN  
DRETZOAK ETA EGINBIDEAK  
ELETZIONETAN**

BAIONAN

LASSERRE, liburu egilearen baithan,  
Gambetta karrikan, 20  
1890

# ESKUALDUN MAITEAK,

Aphezek deus ikustekorik ez dutela eletzionetan, aphezek beraz ez dutela eletzionetan deus erran ez egin behar, zenbat aldiz ez duzue aditu! Gezur hori egia izaita ongi nagi bailukete erlisionearen etsai guziek! Bainen gezurra dela, hala dela beti eta beti hala izanen dela, nasaiki frogatu diote, duela hilabetetsu bat, Deputatuen Ganbaran, *Murde Freppel*, Angereko jaun aphez-pikuak. Jaun hori Frantziako aphezpikurik fama-tuena da, hedadura eta jakitate handiko gizona, zaintzatzaile ederra eta garbia.

Ez ditake harrek baino hobeki erakuts, *zer dretxo eta zer eginbide dute aphezek eletzioneri buruz*. Eta horra zertako nahi izan diozkatedan haren erranak eskual-herriko boz emaileri irakurrarazi. [...] hunek dakharzka eskuararat itzuliak, ez nahi bada hitzez hitz, bainen bizkitarean diren azal-bezala, xuxen xuxena, deusetan ere [...]kurtu gabe.

Bertzalde nere lana Murde Freppeli berari ezagutarazi diot, hitzez hitz, xehe xehea frantse-

sez ezarririk; galdegin diot lan horren hedatzeko baimena; eta huna zer ihardetsi dautan:

«JAUN ERRETOR MAITEA,

»Ongi gogotik onhesten dut, eskuatarat itzulirik heda detzazun Deputatuen Ganbaran, kasuak hala emanik, adiarazi izan ditudan solasak, erraiteko zer dretxo eta zer eginbide duten aphezek eletzioneri buruz. Gauza ona eta beharra da, boz emaile girstino guziek ezagut dezaten irakaspén hori. Irakaspén hori hain segura eta hazkarra da non, orain arterainokoan, nihor ez baita kordokatu beharrez abiatu ere. Noiz eta ere guziek, beren eginbidea duten bezala, irakaspén horrek dakharkena eginen baitute, orduan orai ez bezala izanen da gure Frantzia.

»Laudorioak darozkitzut, jaun erretor maitea, egin duzun lanarentzat, eta gelditzen naiz bihotzetik zure zerbitzari.

»Ch. Emile Freppel,

»Angereko aphezpikua.»

Eskerrak diozkut Angereko jaun aphezpikoari letra eder horrentzat; letra hori gu guzientzat argi eta indar berri bat da.

Eta orai, Eskualdun maiteak, har zazue papertto hau fidantziarekin; irakur zazue artharekin; ordutik, segurki jakinen duzue zoin diren *aphezen dretxoak eta eginbideak eletzionetan.*

L. DIHARASARRI,  
Kanboko erretora

# APHEZEN DRET XOAK ETA EGINBIDEAK ELETZIONETAN

Deputatu Jaunak,

Aphezak, eletzioneri buruz, har ditzake *edo* elizan, beren apheztasuneko egitekoetan, *edo* elizatik eta apheztasuneko egitekoetarik kanpo.

Har detzagun lehenik, elizatik, apheztasuneko egitekoetarik kanpo.

Diot aphezak, orduan, baduela nor-nahik bezenbat ikusteko, herriari, Frantziari behatzen zaizkon gauzetan. Gauza hetan sartzea aphezaren dretxoa da; da haren eginbidea. Gauza hetan ez sartuz, huts egin lezoke bere herriari zor dion amodioari.

Bai aphezaren eginbide hertsia, eta baitezpadakoa da, bere jakitatearen eta indarraren araberak, bere egin ahalak egitea herriaren, Frantziaren onetan.

Beraz, bai herriko kontseiluko edo kontseilu jeneraleko gizon baten, bai deputatu baten hautatzeko tenorea heldu denean; aphezak badu

bertze boz emaile guziek duten dretxo eta zuzen bera, hoberena zaion gizonarentzat bere bozaren emaitako.

Eta dretxo hori duenaz geroz, bixtan da horri darraikon bertze dretxo bat ere baduela: dretxoa, bertze boz emaile guziek bezala, ezagutarazteko bere boza norentzat eman gogo duen, eta bertze zuzenez egiten dituzten guziak egiteko, berak nahi duen harri ahal bezenbat boz emanarazteagatik.

Egia hori ezin ukhatua da, ez badiozkatzue aphezari khendu nahi legeak Frantziako seme guzietan emaiten diozkatena dretxoak. Ez dakit hortaraino helduko zareten egun batez! Naski bai, oraiko sailari jarraitzen bazarete. Baina orainokoa ez duzue holakorik egin; eta gauzak hartzen ditu orai diren heinean.

Aphezen dretxo hori aithortzen du Gambettaren dizipuluek egin den gazeta gorri handi batek berak: «Apheza, zion *Errepublika Frantse-sak*, Frantziako seme guziak bezala zuzenez sar ditake eletzionetako guduan; erran dezake norentzat emaiten duen bere boza, eta zertarako.»



*Norentzat eta zertako!* Ez dugu bertzerik galdegiten. Hori, bere iduriko, bixta den gauza da.

Gauza horren ukhatzeko, behar litake frogatu aphezak deus ikustekorik, deus intresik ez duela eletzionetan, eta beraz ez duela zeren sar eletzionetako guduan. Bainan nola erran ditake holakorik?

Hasteko, aphezak badu bertze Frantses guziek duten ikusteko edo intres bera; eta hura da, Frantziako aferak, nahiz erresuma barnekoak, nahiz kanpokoak, esku onetan aurkhi dadien. Bai hori aphezaren intresa eta ikustekoa da, zergak pagatzen dituenaz geroz, eta atxikia denaz geroz Frantziaren ohoreari.

Beraz aphezak, edozein bertze Frantsesek bezen ongi, egin ahalak egin detzazke, deputatutzat eta kontseilaritzat izendarazteko gizon argituenak, segurenak, bere ustez herriari eta erresumari ohorerik eta abantailik gehiena ekharriko dioten gizonak.

Ez dut aski erraiten.— Frantses guziek duten intres hortaz bertzalde, aphezak, preseski aphez delakotz, badu eletzionetan, beretzat eta bere aphez lagunentzat, intres berezi bat.

Horrek harritzen zaituzte? Bizkitartean, langilek, ofizialek, laborariek, etxeko jaunek, horiek guziek beren intresari eta berak bezalako enari behatzen diote; eta eletzionetan intres hura, beren on hura ahalaz bilhatzen dute, intres hura ezagutzen duten, on hura beren ustez emanen dioten gizonak hautatuz. Nork erranen du hori gaizki dela? Bakotxak bere ona, eta bera idurikoa bilhatzea, hori zuzen da, eta hortarat ekhartzen gaitu naturalezak berak.

Eta zertako bertzentzat on eta haizu dena, ez ditake hala aphezentzat? Zer! eletziona batzuetan badire konparazionera: alde batetik, Elizarekilako bakea hautsiko dutela, eta aphezari paga khenduko diotela, goraki dioten gizon batzu; bertze aldetik, gizon batzu gauza horiek errespeta-tuko eta atxikiko dituztela hitz emaiten dutenak:— (gauza horietan ikusteko eta intres gehienik dutenak aphezak direla, bixtan da! eta halako gizonen artean, aphezak ez luke dretxoa bere egin ahalaren egiteko batzuen alde, eta bertzen kontra! Bainan hori ez litake xoilki injustizia; litake zorokeria, eta zorokeriarik handiena!

Huna beraz lehenbiziko phondu bat osoki, eta dudarik geldi ez ditaken bezala, argitan ezarria: *Elizatik kanpo, bere aphezetasuneko egitekoetarik kanpo, aphezak edozoin bertze Frantsesek bezenbat dretxo badu, bere ustez erlisionearen eta Frantziaren intresak hobekienik atxikiko eta zainduko dituzten gizoneri bere bozaren emaitako, eta hekien alde ahal bezenbat boz biltzeko, hartarakotzat egiten dituelarik bertzek zuzenez egiten dituzten guziak.*— Ikus dezagun orai zer dretxo eta eginbide duen aphezak, eletzioneri buruz, elizan, bere aphezetasunezko egitekoetan.

Aithortzen dut hemen bidea ez dela hain zabala, eta aphezak kasu gehiago egin beharko duela. Ez bizkitartean gobernamentuarengatik hartzen duen diruarengatik: 900 libera urthean erretor batentzat, gauza gutia da; eta, duela ehun urthe, erreboluzioneko gizonek berek erretor bakotxari 1.200 libera emaiten ziozkaten. Bainan eman dezagun hainitz dela. Hainitz edo guti, diru horrek, gan den mendearen azkenera Elizari khendu ziozkaten ontasunetarik, eta ontasun hekien errenta gisa emana den diru horrek, deus ez du egiten orai mintzo naizen gauzan.

Diru hori hartzen duelakotz, apheza ez da bate-re gobernamentuaren enplegatu eta gizon bilhakatzeko.

Gobernamentuaren enplegatu eta gizon izaiteko, behar da baitezpada eskuetan izan gobernamentuak emanikako zerbeit ahal edo indar. Alta, egungo egunean, aphezpikuetarik hasirik eta azken erretoretaraino, eliza gizon bihi-bati ez dio deusetan den gutineko indarrik edo ahalik emaiten gobernamentuak.

Apheza Elizaren enplegatua eta gizona da, baina ez gobernamentuarena. Ez diote, ez errepublikako presidentak, ez haren ministroek, aphezpikueri eta aphezeri emaiten, Ebanjelioaren irakasteko, sakramentuen emaiteko, beren diosesetako eta herrietako fededunen zerurat bidatzeko ahala eta dretxo.

Holakorik erraitea haurkeria litake eta bitxikeria.

Aditzen dut norbeitek erraiten, errepublikako presidentak izendatzen dituela aphezpikuak. Izendatzen, ez; hautatzen xoilki eta berexten, eta gero bere hautua Aita Sainduari ezagutarazten. Bainan hori, dakizuen bezala, ez da norbeiti

aphezpikutasuneko ahalaren eta indarraren emaita.

Beraz ez du, gobernamentatik zerbeit diru hartzen duelakotz, aphezak eletzioneri buruz zuhurtzia eta kontu berezi bat ekharri behar, elizan bere apheztasuneko egitekoetan; ez, kontu eta zuhurtzia berezi hori ekharri behar du, aphez delakotz, eta begiratu behar duelakotz arimak kasurik egin gabe eta nola-nahizka zauritzetik; ezen arima hek harren beharra izan dezakete salbatzeko.

Horra zertako, eletzioneri buruz, aphezak prediku alkitik ez duen nihor izendatu behar. Ez, ez zaio haizu (ikusten duzue lañoki eta garbiki mintzo naizela), ez zaio haizu erretor bati erraittea prediku alkitik bere herritarreri: Zuen boza emanen duzue holakoarentzat edo halakoarentzat. Hori ez da haizu, duela zonbeit denbora Aita Sainduaren partez Erromatik igorria izan den letra batek dakharkenaren arabera. Huna zer dion letra hunek:

«Aphezek ez dezatela prediku alkitik sekulan nihor izenda, eta gutiago oraino nihoren ohorerik gal, eletzioneri buruz. Elizaren ministroak ez dire

eletzionetan beren karguak emaiten dioten zontzei gauza bereziren ardiesteko, bainan xoilki holakoaren edo halakoaren izendatzea erlisionearantz kalte litakenean.»

Beraz aphezak, eletzioneri buruz, ez du nihor predikutik izendatu behar, bai bere apheztasunak berak hala manatzen diolakotz, bai Elizaren buruzagiek hori debekatzen dutelakotz.

Bainan nihor izendatu gabe, ez othe dezakete, aphezpikuek beren manamenduetan, aphezak beren igandetako predikuetan, girstinoeri erran: Orhoit zaitetze boz emaita ez dela nola nahiko gauza bat, bainan gauza bat kontzientziari handizki behatzen zaiona, kontzientzia handizki ukhitzen duena; orhoit zuen boz emaita kondu bihurtuko diozuela Jainkoari; partalier, partzun zaretela zuen boz emaitetik ethorriko diren gaitz eta kalte guzietan, eta hortakotz ez zaitzuela haizu zuen boza emaita, Elizaren irakaspenen eta obren etsaieri?

Bai segurki, hori egin dezakete; badute segurki hola mintzatzeko dretxo.

Dretxo horren ukhatzeko, behar litake frogatu: edo kontzientziak ez duela deus ikustekorik

boz emaitetan, edo aphezak deus ikustekorik ez duela kontzientziari behatzen zaizkon gauzetan.

Baina bi gauza horiek nihork ez ditu frogatu-ko ezen bixtan da ez ditazkela horiek hola izan.

1. Apheza deus ez da, edo haren eginbide lehe-na eta baitezpadakoa da, giristinoeri irakastea zer egin behar duten, bai bakharzkako gauzetan, bai familiako, bai herriko eta erresumako gauze-tan, ezen horiek guziak sartzen dire giristino bizi-ko eginbidetan.— 2. Halaber, Jainkoaren legea eta kontzientzia deus ez dire, edo aithortu behar da kontzientziari handizki behatzen zaion gauza; kontzientzia gehienik uki dezaketen gauzetarik bat dela boz emaita; ezen boz emaitak erranen dute, heia herrietako eskolak giristinoak izanen diren ala Jainkorik gabekoak, heia aphezik gehia-go egiten ahalko den ala ez, heia gure erlisione sailduko zeremoniak agerian, kanpoan egiten ahalko ditugun, ala gure elizen barnean hertsirik idukiko gaituzten, handik ere gero kasatzeko, 1793an bezala. Bai, gaitz horiek guziak eletzio-nek ekhar detzazkete.

Alta, gauza horiek ez balin bazaizko kontzien-tziari behatzen, zer da bada kontzientzia? Eta

gauza horietan ez balin badu erlisioneak ikustekorik, zertan bada izanen du erlisioneak ikustekoa?

Beraz, dudarik batere gabe, aphezpikuek beren manamenduetan, aphezek beren predikuetan, badute segurki dretxo, nihor izendatzen ez dutelarik, giristinoak bi gauzez orhoitazteko: 1. hekien eginbidea dela bozaren emaita; 2. hekien eginbidea dela, sekulan beren bozik ez emaita Elizaren eta erlisionearen intresen kontra diren gizoneri.

Bai, hori aphezpikuen eta aphezen dretxo ezin ukhatuzkoa da.

Hori da aphezpikuen eta aphezen eginbide hertsia eta sakratua.

Eta aphezen dretxo hori, non nahi mundu guzian, salbo Frantzian errepublikano andana batek, gizon argitu guziek onhesten dute eta onhartzen.

Ez naiz mintzo libertate hainitz den erresuma batez, Angleterraz.

Han, eletzionetako, erlisioneari behatzen zaizkon gauzetarik kanpo ere, aphezek nahi dutenen alde indar egiten dute, eta nihor ez da



hortaz harritzen ez asaldatzen; nihork, berrogoi urthe huntan, ez du bozik altxatu erraiteko, aphezek ez dutela herriko, erresumako gauzetan, legeak dakharken bezala, sartzeko eta indar egiteko zuzena.

Bainan huna bertze erresuma bat, zointan segurki ez baita sobra libertate; erresuma hortako gobernamentua bere dretxoak oso osoa zaindu eta begiratu nahia da, eta arrazoin du; ezen utzi behar dire gobernamentuen gizonak beren sailean, nola aphezak berenean: badituzte batzuek eta bertzek beren egiteko bereziak.— Nahi duzue beraz jakin zer iskribatzen zuten Prusiako aphezpikuek, Koloñako arxaphezpikua aintzindari, 1888an, eletzione handien besperan? Huna:

«Boz emaita kontzientziaren eginbide bat da. Boz emailek hautatu behar dituzte giristino onak, erlisionea eta Jainkoaren beldurtasuna nazionen zimendurik eta indarrik hoberenak direla daukaten gizonak, eskoletan katixima eta othoitza atxiki nahi dituztenak, eta Elizaren bethiereko dretxoan alde agertuko direnak; gizon batzu deusek zeharraziko ez dituenak egia-

rentzat eta justiziarentzat gudukatetik. Aphez-  
zek bezenbatean, fida gare, ez baxharrik berek  
beren boza emanen dutela, bainan oraino,  
zuhurki eta gauzak ikusiz, bai beren etsenpluez  
bai beren hitzez, egin ahala eginen dutela, nahiz  
Jainkoaren nahiz enperadorearen aldera ongi  
ekharriak diren gizonen izendatzeko.»

Frantziako aphezpikuek ez dute bertzerik  
erran azkeneko eletzioneri buruz. A! erran balu-  
te: bozak ematzue erregerentzat, errepublikaren  
kontra; orduan zuen errenkarak eta sumindurak  
onhar netzazke. Bainan ez, urrun da: gauza  
horietan, alainanbada, bakotxak hoberena zaion  
alderdia atxik dezake; bainan ez dire horiek pre-  
dikuetakoa irakaspenetan sartzen diren gauzak.

Eta horra zertako ez duen aphezpiku bakhar  
batek ere erran, bozak eman behar zirela erre-  
geren alde, errepublikaren kontra; nihon, aphez-  
pikuen manamenduetan, ez da gauza hori aipha-  
tua ere.

Frantziako aphezpikuek erran dute xoilki Pru-  
siakoek 1888an ziotena:

Bozak emotzute egiazko giristino diren gizo-  
neri, eskoletan katixima eta othoitza atxiki edo

ezarri nahi dituzten gizoneri. Elizaren dretxoak eta erlisionearen intresak zainduko dituzten gizoneri.

Ez balire hola mintzatu, ez zuten beren eginbidea betheko, eta zaindu eta begiratu behar zituzten ontasunak, etsaien eskuetarat utziko zituzten eta berek emanen.

On da ikus dezagun nola mintzo diren aphez-pikuak bertze erresumetan ere, ezagutzeagatik Frantzian, errepublika dugularik, ez dugula erregen eta enperadoren azpiko diren asko lekutan bezenbat libertate eta dretxo.

— Huna zer zioten 1885ean Autrixiako aphez-pikuek, eta nihork ez zuen han gaizki kaunitu:

«Orai izendatuko dituzten deputatuek legeak eginen dituzte, bai eskolen gainean, bai ezkontzaren gainean, bai Elizaren eta gobernamentuaren arteko aferen gainean. Hortarik ageri da, zoin gauza premiatsua den deputatuen izendatzea; ezen nolakoak ere izanen baitire deputatuak, eta halakoak izan dire hek egin legeak, arbola onak fruitu onak ekhartzen dituenaz geroz, eta arbola tzarrak fruitu tzarrak. Beraz, bai mundu huntako bai bertzeko zuen

onetan, hautatu behar ditutzue gizon batzu, ez xoilki argituak, bainan oraino zin zinez katoliko direnak, eta beren herriaren edo erresumaren ongiari atxikiak.

»Eta nola on eta behar baita guziek, zuen bozak barraiatzeko orde, giristino on berari eman detzotzaen; eta nola maizenik ez baitzina-kikete nori eman, kontseilu galde zozue zuen erretorari, edo bertze kontzientzia zuzeneko zonbeit gizon argitueri: eta bozak eman hek erran bezala. Norbeitek bere boza emaiten balio erresumaren ongi egiazkoa nahi ez luken gizon bati, harrek bekhatu egin lezake, egin lezake huts handi bat bere herriaren, Elizaren eta Jainkoaren aldera.»

Horra zer zioten Autrixiako aphezpikuek; eta sekulan Frantziako aphezpikuek ez dute gehiagokorik erran.

Hola hola mintzo dire Espainiako aphezpi-kuak: «Ez eman sekulan zuen bozak egiazko katoliko ez diren gizoneri. Emaiten badiozkatzue-te, zeronek egin ez ditutzuen hainitz bekhatu, Jainkoak bizkitartean zuen gain emanen ditu,

zeren zuek izendatu gizon hek eginikako gaizkian parte baituzue.»

Orai artio ez naiz mintzatu errege baten edo enperadore baten azpiko diren nazionez baizik. Bainan errepubliketan ere bardin, salbo Frantzia-koan, nihork ez du ukhatzen aphezek irakats dezoketela giristinoeri, sekulan ez zaiotela haizu bozik emaita Elizaren dretxoan eta erlisionearen intresen kontra diren gizoneri.

Ez naiz mintzo Nort-Amerikaz; guziek badakigu nihon ez direla aphezak han bezenbat eletzionetako guduan sartzen.

Aditzen dut norbeitek erraiten, Nort-Amerikan ez diotela gobernamentuak aphezari dirurik emaiten. Badakit, bainan zertako ez diote emaiten? Huna bi hitzez: Zeren ez baitiozka han, Frantzian bezala, gobernamentuak Elizari bere ontasunak hartu eta khendu. Hemen ere bihur ditzagutzue gure ontasunak, edo bederen parte; eta ez dautzuetegu arditik galdeginen. Uzten dut beraz Nort-Amerika, eta heldu naiz Suisara. Huna nola mintza zitzaioten Jenebako aphezpi-kua bere diosesako giristinoeri, eletzionen aintzinean:

«Giristino bakotxak, boz emaiten, eginbide bat bethetzen du; eta bere bozaz kondu zor dio bai Jainkoari bai bere herriari. Ez zaio haizu, — eta bekhatu da— ez zaio haizu, bertze askok hala egiten dutelakotz, bere boza ez-axolakerian, itsura bezala emaitera; ez zaio haizu bere boza saltzea, eta emaita beren abantaila baizik bilhatzen ez duten, eta gure dretxoak eta libertateak mendratu edo ezeztatu nahi lituzketen gizoneri.

»Niri dago, Elizaren manuz, zuen argitzea eta xuxen bidatzea; niri, Elizaren libertatea ahalaz osorik atxikitzea: eta horra zertako orhoitarazten zaituztedan sobra maiz ahanzten eta hausten den eginbide hortaz.»

Hori ber-bera zioten Frantziako aphezpikuek, azkeneko eletzioneri buruz.

Nola bada bertze toki guzietan ontzat eta haitzat atxikia den gauza, ez litake hala Frantzian? Bainan, Jaunak, hori litake aithortzea: Frantzian libertate gutiago dela, ezen-ez Angleterran, Nort-Amerikan, Prusian, Autrixian, Italian, Espainian, hitz batez, edozein tokitan. Hori errazue, zuek, nahi baduzue; nik ez dut berritz erra-

nen: ahalge nintake Frantziarentzat eta zuentzat.

Eta orain akabatzeko, eman dezagun, han hemenka, zonbeit aphez eletzioneri buruz biziki-xegi mintzatu dela; diot, *eman dezagun*, zeren ez baita batere gauza segura. Bainan bai, eman dezagun hemen edo han, aphezenganik zonbeitto behar ez ziren solas athera direla. Zer dire horiek, zuen gazetek denbora berean erlisioneari egin dioten gerlaren, erlisioneari burrustan artiki diozkaten laidoen aldean!

Zer! hamar urte huntan gerlan hari zarete Elizaren, haren irakaspenen eta obren kontra.

— Serorak khendu ditzue Pariseko eta bertze asko hiri handietako ospitaletarik; bai, serorak erien aldetik urrundu ditzue, nahiz mediku gehienek eta famatuenean han atxikitzea nahi zuten.

— Eskoletarik othoitza eta katixima khendu ditzue; eta hori, bardin katholikorik baizik ez den tokietan, aditu eta onhartu izan nahi gabe aita familiakoen eta herrietako kontseiluen galdeak.

— Aphez-gaiak urthe batentzat kazernarat igortzen ditutzue, eta horrengatik ez da aphezik aski egiten.

— Soldaduko lehen horren bidez, suntsituko ditutzue misionest kongregazione miragarri batzu, mundu guzian Frantziaren izena eta amodioa hedatzen dutenak.

— Erretoreri khendu diozue, eta egun oroz khentzen, zor diozueten paga; eta horren egiteko ez duzue zuen alde legearen itxurarik ere: ezen 1813eko legea mintzo da xoilki beren herria eta kargua utzi dituzten erretorez.

— Azkenekotz, diozue beti, hautsi behar duzuela Aita Sainduarekin eginikako antolamendua, *konkordata* deitzen dena, eta aphez guzieri khendu behar diozuetela beren paga.

Eta horiek guziak egin ditutzuenean, horiek guziak egin gogo ditutzuela irakusten duzuenan, bitxi eta gaizki zaitzue, horrela pairarazten eta zauritzen ditutzuen bihotzetarik, zenbait errenkura eta oihu garratxko atheratzea! O! hori ez da zuzen, ez eta ere zuzenaren aldeko.

Akabo dut; huna bi hitzez erran ditudan guziak:



— *Elizatik kanpo, bere apheztasuneko egitekoetarik kanpo, aphezak, eletzioneri buruz, badi-tu bertze edozoin Frantsesek dituen dretxo berak.*

— *Elizan, bere apheztasuneko egitekoetan, aphezak ez du nihor izendatu behar; bainan badu dretxoan giristinoeri erraiteko: hekien eginbidea dela bozaren emaita, eta sekulan ez emaita Elizaren dretxoan eta erlisionearen intresen kontra diren gizonentzat.*

\* \* \*

Irakaspén horren ondotik, eta, beharrik balu, horren osoki finkatzeko bezala, iduritzen zait ederki heldu direla, duela bi hilabete, Aita Sainduak mundu guziari adiarazi diozkan hitzak. Huna iguzkia bezen argi diren hitz hek; boz emaita giristinoek ez lituzkete sekulan ahantzi behar:

«Giristinoek sustengatu behar dituzte zuzentzat ezagutuak diren, eta Eliza katolikoaren alderdia atxikiko duten gizonak; eta sekulan, zer nahi arrosain izan dezaten, ez zaiote haizu, hek

utzirik, hautatzea erlisionearen kontrako gizonak.»